## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA -

1. Zoin dira Uhaldeak hunkitu dituen etxaldeak?
2. Bankako elektrika ehoirak zer hiri argitzen zuen?
3. Zoin herri du gehienik jo basurak.?

## (II) UHALDEA 4

Mazela berari datxikotela dituzu *Xoko, Errientaene, Makurre, Migelene, Domingoeneko* ontasunak, ez baita bat azkarki hunkitua izan ez denik: dela gaztenondo errotik ateratze, dela harrasu aurdikitze, dela alor larrutze, dela pentze erroizte edo zikintze. Etxe horien peko aldean baitzuen egina «*Compagnie hydro-èlectrique*» delakoak diteken ur-untzirik ederrena, hemendik har zezan bere jogia Bankako elektrika-eihera, Baionako hiriaren argitzeko alarazi behar zuen urak, ur-untzi hura dena harriz ala lohiz beterik dago orai hantxe, bere burdin-ate bihurtu eta makurtuekin: hiruetan-hogoi-mila liberaren xahubide.

Eskualde beretik iragaiten ere da erregebidea, kasik Bankaraino; errexki ageri baita, geroztik, nola hautsia izan diteken lauzpabortz gunetan; hotarik itsusiena *Uhaldetik* haratxago: erroitz , hamabortz metre luze eta zortzi barna, menditik 300 metreko gerenda bati beheiti, bur-zoragarriki xut. Bainan mendi lerro horren Espainiarateko ixurkiari zako lerratu ur ketarik handiena, Frantziaratekoa baino hainitzez patarrago delakotz; *Hauzuren* zola-zolan baita *Erratzu*, hau du gehienik lehertu gain behera basurak, eta huntarik lekora, auzoan, *Elizondoko* hiri pollita, —Euskal Herrietan begikoenetarik bat.

Dotem ETXEPARE

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. datxikotela 32 diteken
33 zako lerratu 34 dago. 35. Har zezan

31. ATCHIKI = tenir à - Verbe defectif.

Indicatif présent.

Nik natxiko = je tiens à
Hik hatxiko (m. f.) = tu tiens à
Zuk zatxizkio (s) = vous tenez à
Harek datxiko = il tient à
Guk gatxizkio = ns tenons à
Zuek zatxizkiote (p) = vs tenez à
Heiek datxizkio = ils tiennent à

Actuellement, deux formes datives sont vivantes: datxikola et datxizkola, attenant à, attaché à.... mode complétif. Ex: giltza atheari datxikola atxemanen duzu: vous trouverez la clé suspendue à la porte. etxe horri datxizkola baziren bi eritegi = touchant cette maison, il y avait deux hôpitaux.

33. IZAN - Régime indirect. Indic. Présent. Singulier

Hura da = il m'est

Hura (lui) zait (à moi) = il m'est
zaizu (à vous) = il vous est
zaio (zako) (à lui) = il lui est
zaigu (à nous) = il nous est
zaizue (à vous) = il vous est
zaie (zakote) (à eux) = il leur est

Ni naiz = je suis

Ni (moi) nitzaizu (à vous) = je vous suis
nitzaio (à lui) = je lui suis
nitzaizue (à vous) = je vous suis
nitzaie à eux = je leur suis

Zu zira = vous êtes

Zu (vous) zitzaizkit (à moi) = vous m'êtes
zitzaizkio (à lui) = vous lui êtes
zitzaizkigu (à nous) = vous nous êtes
zitzaizkie (à eux) = vous leur êtes

32 IZAN Potentiel Présent — Imparfait

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Ni izan naiteke = je peux être | N izan ninteken = je pouvais être |
| Hi -"- haiteke = tu peux être | H -"- hinteken = tu pouvais être |
| Zu -"- zaitezke = vs pouvez être | Z -"- zintezken = vs pouviez être |
| Hura -"- daiteke = il peut être | H -"- ziteken = il pouvait être |
| Gu -"- gaitezke = ns pouvons être | G -"- gintezken = ns pouvions être |
| Zuek -"- zaitezkete = vs pouvez être | Z -"- zintezketen = vs pouviez être |
| Hek -"- daitezke = ils peuvent être | H -"- zitezken = ils pouvaient être |